

ZUMARRAGA / Udal liburutegia Zelai Arizti parkera atera dute, haurren eta helduen gozamenerako

'Biblioparke' egitasmoa liburutegiaren espazioa zabaldu eta herritarrei gerturatzeko egin dute, modu ludikoan.

MIRIAM LUKI. Zabalik dago jada Biblioparkea. Haurrak erakartzen baditu ere gehien, adin guztietako erabiltzaileei zuzendutako egitasmoa da berez. "Udal liburutegiko ateetatik harago, parkean kokatutako espazio ludikoagoa sortzen dugu, ahalik eta jende gehien erakartzeko, azaldu du udal liburutegiaren arduradun Irene Gonzalezek.

Biblioparkea uztailaren 23ra arte egongo da zabalik, Zelai Arizti parkean, 11:30etik 13:30era. Udal liburutegiaren osagarri da, irakurzaletasuna sustatzeko helburua duena. Mahaiak eta aulkiak jarri dituzte, baita ipuinak eta liburuak gordetzeko apalak ere.

"Haurrak etortzen dira gehien. Zortzi urtetik beherakoak helduak lagunduta etorri behar dira. Aldizkariak eta egunkariak ateratzen ditugu parkera, eta helduek asko eskertzen digute.

Haurrentzako bildumak eta gaztetxoentzako komikiak dira aukeran jartzen dituzten liburu mota gehienak. Biblioparkean begirale bat egongo da, eta bere kargu hartzen du egitasmoaren dinamizazioa. "Liburuak irakurtzen dizkie haurrei, margotzeko materiala eta jokoak ematen dizkie.

Haurren liburutegia

Liburutegi tradizioanala baino espazio ludikoagoa da parkeko biblioteka. Isiltasuna ez da araua han, eta horrek beste giro bat sortzen du. "Uda gerturatzen ari denean parkea noiz jarriko dugun martxan galdetzen digute. Hirugarren urtea du, eta aurreko bi ekinaldien balorazio "oso ona egin du Gonzalezek.

Nolanahi ere, udal liburutegiak berak ere arrakasta handia izan du Zelai Arizti kultur etxeko gunera eraman zutenetik, 2007an. "Haurren liburutegiaren bitartez heldu asko gerturatu da, eta erabiltzaile bihurtu dira. Gurasoen txokoa deitu dugun gunea bat sortu genuen. Gurasoen kezkei erantzuten dieten liburuak daude batik bat, eta azpimarragarria da izan duen arrakasta. Bide horretatik, beste mota bateko literatura irakurtzeari ekin diote askok eta askok.

Mediateka

Mediatekak ere bere espazioa du. "Aurreko liburutegian ez zegoen halako zerbitzurik, eta sortzen ari garen film funtsak esker oneko hitz asko ekarri dizkigu erabiltzaileen aldetik. Lan horretan Butak21 zineklub taldeak eskaintzen digun laguntza eskertu behar dugu gure aldetik.

Gaur egun Zumarragako Udal Liburutegiak 3.457 bazkide ditu, eta 27.572 ale bere funtsean. Uztailerako ohiko ordutegia aldatu egin dute: goizez 09:30-13:30 eta arratsaldez 17:00-20:00. Ostegun eta ostiral arratsaldeetan liburutegia itxita egongo da.